

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



Latina II

USE 2022

www.ehu.eus



Ez ahaztu azterketako orrialde bakoitzean kodea jartzea.

- Proba idatzi honek 2 multzo ditu (A eta B): **biak** egin behar dituzu.
- A multzoan 2 ariketa daude (A.1 eta A.2): haietako **1 bakarrik** egin behar duzu.
- B multzoan 3 galdera nagusi daude, eta haietako bakoitzak zenbait aukera ematen ditu: **3 galderei** erantzun behar diezu, baina haietako **bakoitzean aukera bakar 1** hartu behar duzu.

OHARRA: Latin-hiztegi batzuek **gramatika-eranskin bat** izaten dute (deklinabideen eta adizkien taulekin, eta abar). **Zilegi izango da eranskin hori erabiltzea**, hiztegiarekin batera, dela eranskina hiztegiaren orrialdeetan dagoela, dela liburuxka solte gisa dagoela. Bestalde, nahi duenak **bi hiztegi** erabil ditzake batera: bat latina-gaztelania eta beste bat latina-euskara.

No olvides incluir el código en cada una de las hojas de examen.

- Esta prueba escrita tiene dos bloques (A y B): debes hacer **los dos**.
- En el bloque A hay 2 ejercicios (A.1 y A.2): debes hacer **solo 1** de ellos.
- En el bloque B hay 3 preguntas principales y cada una de ellas ofrece diversas opciones: debes responder a **las 3 preguntas**, pero **dentro de cada una de ellas debes responder solo a 1 opción**.

NOTA: Algunos diccionarios de latín adjuntan un **anexo gramatical** (cuadros de declinaciones y verbos, etc.). **Se permitirá su uso** junto con el diccionario, ya sea que dicho anexo esté en las propias páginas de este o se trate de un cuadernillo independiente. Por otra parte, se permitirá el uso simultáneo de **dos diccionarios**: uno latino-español y otro latín-euskara.



A MULTZOA: Itzulpena eta hari buruzko galderak

Multzo honek bi aukera ditu (A.1 eta A.2) eta bakoitzak 7 puntu balio du: haietako **bakar bat** aukeratu behar duzu.

A.1

1. **galdera:** Itzul ezazu testu hau (hiztegia erabiliz):

5 puntu

Zesar Britania uhartera iritsi da bere itsasontziekin, baina zenbait gauza falta zaizkio eta horrek ez dio uzten nahi lukeen bezala borrokatzen; haren etsaiak konturatu egin dira, eta aukera baliatu nahi dute.

Quibus rebus cognitis, principes Britanniae, cum et equites et naves et frumentum Romanis deesse¹ intellegerent, rebellionem facere decreverunt, ut nemo postea ad eorum insulam transiret². (Caes., Gall., IV, 30)

Oharrak

1) *deesse*: *desum* aditzarena (*sum* aditzaren arabera jokutzen da)

2) *transiret*: *transeo* aditzarena (*eo* aditzaren arabera jokutzen da)

2. **galdera:** Egin ezazu *principes ... decreverunt* esaldiaren analisi sintaktikoa, hura osatzen duten sintagmak eta perpausak identifikatuz. 1 puntu

3. **galdera:** Egin ezazu *rebus* eta *intellegerent* hitzen analisi morfologikoa. 1 puntu

A.2

1. **galdera:** Itzul ezazu testu hau (hiztegia erabiliz):

5 puntu

Erroma gerran dago Pirro erregearekin; Valerio Levino kontsulak nahi du etsaiek jakitea erromatar gudarostea askoz indartsuagoa dela haiena baino; horregatik, ez zaio axola espioiak bidaltzen badizkiote.

P. Valerius Laevinus consul, cum exploratores Pyrrhi cepisset, iussit eos per castra duci¹ et omnem exercitum Romanum ostendi². Postea dimisit³ eos, ut Pyrrho nuntiarent ea quae a Romanis agerentur. (Ørberg, II, 186)

Oharrak

1) *duci*: orainaldi pasiboko infinitiboa (*duco*, *-is*, *-ere*, *duxi*, *ductum* aditzarena)

2) *ostendi*: orainaldi pasiboko infinitiboa (*ostendo*, *-is*, *-ere*, *-tendi*, *-tentum* aditzarena)

3) *dimisit*: perfektua (*dimitto*, *-is*, *-ere*, *-misi*, *-misum* aditzarena)

2. **galdera:** Egin ezazu *Postea ... agerentur* esaldiaren analisi sintaktikoa, hura osatzen duten sintagmak eta perpausak identifikatuz. 1 puntu

3. **galdera:** Egin ezazu *cepisset* eta *Romanis* hitzen analisi morfologikoa. 1 puntu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK

2022ko OHIKOA

LATINA II

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD

ORDINARIA 2022

LATÍN II

B MULTZOA: Galdera teorikoak

Multzo honek hiru galdera nagusi ditu, eta bakoitzak puntu bat balio du; galdera nagusi bakoitzaren barruan zenbait aukera daude: aukera horietako bati bakarrik erantzun behar diozu kasu bakoitzean.

1. galdera (aukeratu 1 bakarrik):

- a) Adierazi zein diren latinezko *dominum* eta *pluviam* hitzekin zerikusia duten gaztelaniako terminoak (gaztelaniaren ondare lexikoari dagozkionak izan zein kultismoak izan), eta egin haiei buruzko iruzkin bat. Zer bilakaera fonetiko izan dute latinetik gaztelaniara pasatzean?
- b) Adierazi zein diren latinezko *apiculam* eta *flammam* hitzekin zerikusia duten gaztelaniako terminoak (gaztelaniaren ondare lexikoari dagozkionak izan zein kultismoak izan), eta egin haiei buruzko iruzkin bat. Zer bilakaera fonetiko izan dute latinetik gaztelaniara pasatzean?
- c) Adierazi euskarazko zein hitz ezagutzen dituzun latinezko *benedico*, *-ere*, *-dixi*, *-dictum* eta *fortem* (*fortis*, *-e*) terminoekin zerikusia dutenak, eta egin haiei buruzko iruzkin bat.
- d) Adierazi euskarazko zein hitz ezagutzen dituzun latinezko *gentem* (*gens*, *gentis*) eta *castellum* hitzekin zerikusia dutenak, eta egin haiei buruzko iruzkin bat.

2. galdera (aukeratu 1 bakarrik):

- a) Erromatar antzerkia: Plauto eta Terentzio.
- b) Poesia lirikoa: Katulo, Horazio, Ovidio.

3. galdera (aukeratu 1 bakarrik):

- a) Itzul itzazu latinezko esaldi hauek, edo/eta egin ezazu haiei buruzko iruzkin labur bat:

Panem et circenses
Ad kalendas Graecas
Alea iacta est
Captatio benevolentiae

- b) Itzul itzazu latinezko esaldi hauek, edo/eta egin ezazu haiei buruzko iruzkin labur bat:

Agenda
Deficit / Superavit
In albis
Per capita

- c) Zer iruditu zaizu Plautoren *Miles gloriosus* obra? Iritzia argudiatzean, eman itzazu xehetasun batzuk, obra irakurri duzula frogatzeko.



LATINA II – 2022ko OHIKO DEIALDIA

A Multzoa

1. **galdera:** Latinezko testua gaztelaniara edo euskarara itzultzea, hiztegia erabiliz.

- Gehienez, bost puntu.
- Hauek balioetsiko dira: latinezko testuaren edukia ulertzea, kontzeptuak xede-hizkuntzara itzultzeko gaitasuna eta itzulpenak erakusten duen latin-gramatikaren ezagutza.

2. **galdera:** Proposatutako esaldiaren analisi sintaktikoa.

- Gehienez, puntu bat.
- Analizatu behar dira bai esaldi osoaren egitura nagusia bai esaldi horretako elementu bakoitzaren funtzioa.

3. **galdera:** Adierazitako hitzen analisi morfologikoa.

- Gehienez, puntu bat.
- Kasuaren arabera, izen-jokoaren (generoa, numeroa eta kasua) edo aditz-jokoaren (pertsonea, numeroa, denbora, modua eta boza) bereizgarriak zehaztu behar dira, betiere kontuan izanda galdera hitzak testuinguru horretan duen balioari dagokiola (adib.: zer da «hoc» aurrean dugun testuan, eta ez zer izan daitekeen «hoc» testuingurua kontuan hartu gabe).

B Multzoa

1. **galdera:** Lexikoari eta fonetikari buruzko galdera. Latinaren lexikoak gaztelanian edo euskaran izan duen eragina.

- Gehienez, puntu bat.
- Hauek balioetsiko dira: kultismoen eta ondare-hitzen artean bereiztea (gaztelaniaren kasuan) eta hitz bakoitzari dagozkion lege fonetikoaren azalpena (bi kasuetan).

2. **galdera:** Latindar literaturaren historiari buruzko galdera.

- Gehienez, puntu bat.
- Galderan aipatzen den literatura-generoa definitu behar du ikasleak, eta genero horren barruan sartzen diren egileei buruz dakiena azaldu (batez ere, literatura-genero horri dagozkion obrei buruz jardunez).

3. **galdera:**

— **a edo b aukera:** Egungo hizkuntza jasoan erabiltzen diren latinezko lokuzioak eta latin juridikoaren alorreko esaldi eta esaerak:

- Gehienez, puntu bat.
- Esaldien itzulpena edota iruzkin labur bat eskatzen da.

— **c aukera:** Obra latindar baten irakurketa:

- Gehienez, puntu bat.
- Galderaren helburu bakarra da jakitea ea ikasleak eskatu zaion obra irakurri duen; horretarako, behar adina datu eta xehetasun eman behar ditu ikasleak.

OHARRA: Latin hiztegi batzuek gramatika-eranskin bat izaten dute (deklinabideen eta adizkien taulekin, etab.). Ezinbestekoa da epaimahai guztietan irizpide bakarra izatea aipatu eranskin horien erabilerari buruz: **zilegi** izango da eranskina erabiltzea, hiztegiarekin batera, dela eranskina hiztegiaren orrialdeetan dagoela, dela liburuxka solte gisa dagoela. Bestalde, nahi duenak **bi hiztegi** erabil ditzake batera: bat latina-gaztelania eta beste bat latina-euskara.